

BARATZA

Barazki edo ortuari goxo izan oi zaigu, eltze lurrintsutik, mai gaiñera ekarria. Olakorik jalen dugu baserrian; baita merkatura eraman ere, sos-mordo politak etxeratuaz. Nere andreak eta biok badugu baratze joria etxe ostean, urte bira osoan zerbait ematen. Lurgiñak ondo jakin bear du noiz zer gauza erein ta landatu.

Doiñu: «Zazpi eibera baditut,..».

Oiñarri bako etxe apain, dotorea...
zertako nai nuke nik olako etxea?
Baserriak bear du aurrez baratzea,
baita ez urrun ere lore alor mea.

Bazter onean daukat baratz esitua,
barazkitarako bai eder aiutua,
txauak batzarre nai duten arlua,
beti zai nagokion zoko maitatua.

Bertan ditut oparo sasoiz nik eriñik:
arbi txiki gorriak, babarrunak zutik,
berandu lorezen dan ziazerba askorik,
aza, illar motx, meloi, braza guztitik.

Piper, tomate ta uda uraza gorriak,
tipul, apfu ta bainak, azenaio ziak,
badatozkit errime berotuz euzkiak.
Auek bai gustuko sutan egosiak!

Igali zugaitzetan moltzo du ematen,
nik daukadan sailtzarrak zutik oro txorten;
albertxiku, gerezi, aran bigun gizen,
garaiz moztu nitunak orain daude lerden.

Urbil sortu zaizkien —lagun ez ederrak—
moztu dizkiet kontuz zarba me alperrak.
Orren garbi jarriaz datozke lasterrak
udan goxo zaizkigun ale txit xiterrak.

GAZTAIAK

Orain ogei urte argi geiago geneuzkan, eta maiatzetik urrillaren amairarte, mendi goietan ibiltzen ziran. Gaurko egunean gutxiago dauzkagu: irurogei bat. Etxetik urreko baso, zelaiño te aitz-artetan ari oi dira bazka billa. Otsail eta martxo bildots zenbait ematen dizkidate. Artxo ta bildotsak azi ondoren, ardiak duten esnearekin gaztaiak egiten ditugu. Azuriak eta gaztaiak irabazi polita dakarkidate.

Doiñu: «Iriyarena» bezela.

Eskortan ditut nere ardiak
azaro-maiatz tartean;
ez dute goian egon luzerik,
otza bait da uda-larrean.
Urtarrillatik azuriz daukat
bildostegia betean:
gose dirala ezta girorik
ixten dituen atean.

Lankizun dadut ardiak batzen
jorraila eldu ezkerok,
azkar saiatur bear ditut, ba,
nereak jeitzi gauero,
apatza (1) bete esne bistsua
laket bait dugu goizero:

(1) Kaiku.